

**Bokartaren arrantza** Etorkizuna kolokan

tzeko baimena dute arrastontzi pelagikoek. Urtero kopuru hori gaintzen zute- la ikusita, beste 5.000 tona harrapatzeko baimena jaso zuten Portugalekin egindako truke baten bitartez.

Edozelan ere, Frantziak ez du inoiz errespetatu kuota eta arrastontzi pelagikoek nahi beste bokarta harrapatu dute. 1993. urtean pelagikoek 20.900 tona harrapatu zituzten. Bizkaia eta Gipuzkoan, berriz, 16.000 tona. laz, Frantziako arrastontzi pelagikoek 23.000 tona bokarta harrapatu zuten arren, kostera oso txarra izan zen Bizkaia eta Gipuzkoako arrantzaleentzat, 5.900 tona bakarrik bildu zituztelako.

1995. urtean Gipuzkoako kofradien federazioak Eusko Jaurlaritzara jo zuen sare pelagikoei buruzko ikerketa egiteko eskatzeko. Ikerketa horrek garbi utzi zuen bokartak ezingo lukeela jasan horren arrantza presio handia. Gainera, biologoek egindako ikerketen arabera, arrastontzi pelagikoek urteko lehenengo hiru hilabeteetan urtebeteko bokarta gazteak harrapatzea oso kaltegarria da, bokartak hil egiten direlako lehenengo errunaldia egin aurretik, hots, arrautzak uretara bota baino lehen.

**Arrantza debekatzeko proposamena**

Esan beharrik ez dago azken hamabost urteetan bokartak jasotako arrantza presioa kaltegarria izan dela *stock*-arentzat. Europako Batasunak datorren urterako harra-

Bokarta harrapaketak azken hamarkadan											
DATUAK KILOGRAMOTAN											
	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999
Hondarribia	455.673	1.080.848	656.609	2.112.738	2.277.847	1.651.971	2.002.556	1.836.912	586.601	875.605	1.481.207
Pasai San Pedro	25.530	345.590	87.278	243.278	519.449	284.085	240.791	1.775.933	572.854	616.546	1.220.372
Donostia	1.399	121.957	60.186	448.602	304.976	208.044	318.182	291.923	102.669	108.337	197.630
Getaria	1.192.375	3.051.872	1.590.500	3.308.154	3.722.904	2.574.793	3.187.336	2.727.709	1.047.779	1.165.344	2.475.375
Mutriku	199.528	654.987	529.210	1.089.008	757.769	673.776	857.554	859.886	175.304	203.123	283.694
<b>GIPUZKOA</b>	<b>1.874.505</b>	<b>5.256.254</b>	<b>2.923.783</b>	<b>7.401.780</b>	<b>7.582.945</b>	<b>5.392.669</b>	<b>6.606.419</b>	<b>7.492.363</b>	<b>2.485.207</b>	<b>2.968.955</b>	<b>5.658.278</b>
Ondarroa	1.636.451	4.040.835	1.973.896	4.070.832	4.762.992	4.174.285	4.757.466	3.995.398	2.335.146	1.819.640	4.314.833
Lekeitio	636.721	787.209	305.673	950.720	466.678	777.971	572.013	449.362	185.308	132.186	260.278
Bermeo	(*)	2.471.797	1.181.535	2.916.457	1.586.977	2.387.649	2.903.947	2.066.592	780.643	671.614	1.177.195
<b>BIZKAIA</b>	<b>2.286.915</b>	<b>7.325.712</b>	<b>3.468.789</b>	<b>7.942.216</b>	<b>6.857.701</b>	<b>7.351.512</b>	<b>8.244.671</b>	<b>6.513.870</b>	<b>3.301.097</b>	<b>2.623.440</b>	<b>5.755.507</b>
EAE	4.161.420	12.581.966	6.392.572	15.343.996	14.440.646	12.744.181	14.581.090	14.006.233	5.786.304	5.592.395	11.413.785

\* Tostartekoen Greba

Arrantza errekurtsuen utsiapen orekatua ei da Europako Batasunaren arrantza politikaren ardatz nagusia. Errealitatea ikusita, ostera, garbi esan daiteke Bruselak ez duela ezer egin itsasoa jagoteko.

Gauzak horrela, azken urteetako bidetik jarraituz gero, gure itsasoak arrain barik geratuko dira. AZTI institutuak aurtien bertan aurkeztutako txosten baten arabera, arrantza errekurtsuen erdiak baino gehiago arriskuan daude.

Bokarta dugu hizpide egunotan, argi gorria piztu

paketa kopuru mugak ezarriko ditu abenduko Ministroen Kontseiluan. Proposamenen artean, Bizkaiko Golkoan bokartaren harrapaketa debekatzeko dago.

Eusko Jaurlaritzak zein kofradietako ordezkariak

**Arrainik gabeko itsasoak**

Ramon Basaldua

delako. Horregaz batera, ez dugu ahaztu behar bisigua desagertu egin dela Bizkaiko Golkoan. Legatzearekin gauza bera gertatzeko arriskua dago; Terranovan ez dago bakaila-orik.

Bokarta eta hegaluzearen egoera ona zen duela

urte batzuk arte. Egun, ostera, jasan behar duten arrantza presioa nabarmen handitu da, eta epe laburrera neurririk hartzen ez bada, desagertzeko bidean egongo dira.

Arrain kontsumoa handitu egin da munduan, eta arrantza enpresa handiek

ahalik eta etekin handiena atera nahi diote itsasoari, hala, edozein arrantza sistema erabiltzen dute oso kaltegarria izan arren. Horretaz gain, harrapatutako arrainaren tamaina gero eta txikiagoa da, telebistan «*pezqueñines no gracias*» (arraintxoak ez, eskerrik asko) ikusi arren.

Arrantza enpresa industrialek hondamendia ekarriko dute itsasora Europako Batasunaren oniritziarekin. Gure arrantza-leen bizimodua arriskuan dago arerio indartsuegiak dituztelako.

katuta daude. Ez dute ia irabazirik lortu irailatik aurrera eta udaberriko bokartaren zain daude, urteko lehen irabaziak lortzeko.

Ramon Basaldua  
BILBO

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO **Ekonomia eta Turismo Sailak** sustatu eta **Europako Gizarte Fondoak** finantzaturako programa baten barruan, zeinaren bitartez langabezia gutxitu nahi baita prestakuntza profesionala hobetuz, behar ditugu:

**20 TITULUDUN GAZTEAK**

berehala hasteko Gipuzkoako zenbait enpresatan, eta ardurak hartzeko honako arlo hauetan:

- **Publizitate Salmenta eta Marketina**
- **Produktzioa eta Prozesuak**
- **Erosketak eta Logistika**

Titulazio hauetako hautagaiak behar dira:

- **Zuzenbidean lizentziatuak**
- **Ekonomi Zientzietan lizentziatuak**
- **Filologia Ingelesean, Frantsesean eta Alemanean lizentziatuak**
- **Psikologian lizentziatuak**
- **Geografia eta Historian lizentziatuak**
- **Irakasletzan diplomatuak**
- **2. Gradu Lanbide Heziketa eginak Merkataritzan, Administrazioan eta Marketinean**

Postu hauetara aurkeztzen diren pertsonak, nahitaez, 1996az geroztik ateratako titulua dutela egiaztatzea behar dute. Programa batean parte hartuko dute, prestakuntza profesionala hobetzeko goian aipaturako arloetako eskakizunetara moldatzearen, eta kontratu laboralarekin izango dira hasiera-hasieratik nor bere enpresan. Kontratutako pertsona bakoitzak gainbegiratzailerik izango ditu bere enpresako arduraduna eta **HUMANeko**.

Lehenbiziko 20 egunetan aukeraturako pertsonekin bakarrik jarriko gara harremanetan.

Interesdunek, bidal bezate C.V. osatua eta argazki berri bat karnet tamainakoa, harremanetarako telefonoarekin batera, idatzian nahiz gutunazalean **Ref: 22.811** ipinita, helbide honetara:



**HUMAN, Frantzia Pasealekua, 2 - Behegaina B, ezk. 20012 DONOSTIA**  
Tfnoa: 943 27 90 00  
http://www.human-ms.es